

Altza

«Fikzioaz gezurra sinesgarri egitea da nire erronka»

Hilaren 19an, Josu Landak aurten kaleratutako "Odolbildua" liburua aurkeztu zuen Casares kultur etxean. Fermin Muguruza abeslariaren laguntza izan zuen.

Sara Soria

Josu Landak "Odolbildua" liburua plazaratu zuen duela hilabete batzuk. Nobela beltza gogora ekartzen digun istorioa 50. hamarkadako Portugaleten girotua dago. Kontrabandista talde bat da liburuaren ardatza.

Landak 19 urtetan libururik kaleratu ez duen arren, hauek ez da literaturaren mundutik aldendu. Susa argitaletxearekin editore lanetan ibili bai-

ta. "Argitaratu gabe ez du esan nahi idatzi gabe. Niri beste zenbait idazleri ez bezala, zaila egiten zait gauzak idaztea, ezin dut diziplina moduan hartu. Buruan istorioak metatzen zaizkit eta metatutakoa berez puxika baten moduan puztu eta lehertzen ez den arte, ezin dut sinestuta idatzi. Hori, ordea, oso gutxitan gertatzen zait, agian bizimodu lanpetuegia dudalako", esan zuen Landak.

Pertsonaiez mintzo

Sorkuntza lanaz gain, nobelaren pertsonaiez ere aritu zen altzatarra. Mentxu da liburuko protagonista, farmazia eta hotela dituen emakume heldu ezkongabea, kontrabandista tal-


Altzako komunitate plangintza hizpide

Hilak 25ean, Altzako Garapen Komunitarioaren Planaren aurkezpena egingo da Casares kultur etxean, 19:30ean. Planaz ardurafutako diren Arantxa Ferrera, Marimar Jimenez eta Eli Arrieta ariko dira aurkezpen ekitaldian.

dearen hariak mugitzen dituela dirudiena. Idazlearentzat Mentxu da hain zuzen errealtatetik gehien duen pertsonaia. "Mentxu da niretzat pertsonairik hunkigarriena; nik ezagutu eta asko eman izan didaten pertsona batzuen hainbat elementuen nahasketak delako, horregatik da errealagoa. Hala ere, esan didate ez dela posible, 1950. hamarkadan, Portugaleten, hotel eta farmaziaren jabea ezkongabea izatea. Dena den, fikzioa gezurra sinesgarri egiten duen baliabidea da, eta hori da nire erronka", adierazi zuen altzatarrak.

Bestalde, Muguruzaren ustez, eleberririk une zinematografikoak ditu. Ildo horretatik, eta erdi txantxetan, "Odolbildua" nobela zinemara eramateko aukeraz aritu ziren Landak eta Muguruza. Landak Mentxuren rolean Jessica Lang jarriko zuela adierazi zuen. "Nahiago ditudan aktoreen artean ez badago ere, egokia da pertsonaia hori egiteko", gaineratu zuen Landak.

**Josu Landa:
«Zaila egiten
zait gauzak
idaztea»**



Josu Landa idazlea eta Fermin Muguruza musikaria Casares kultur etxean.

euskararen
donostia
poltronatu



Bertsolaritza

- Atzo eta gaurko bertsoak
Kanta, musika, diaporama, dantza, antzerkia
Azaroaren 22an, 20:30etan
Kresala elkartearen

Musika

- Abiadura handiko urte baten kronika
Mikel Markez eta Pako Aristi Kontzertua
Azaroaren 22an, 20.00etan
Loiolako Kultur Etxean
- Nazioarteko Trikitixa jaialdia
Azaroaren 23an, 20.00etan
Kursaal auditorioan
- Benito Lertxundi
Azaroaren 29an, 20.00etan
Kursaal Auditorioan

Antzerkia

- "Ekaitz txorien esku"
Manuel Rivasen testua.
Tanttaka teatroa
Azaroaren 28an 21.00etan
Abenduaren 1ean 20.00etan
- "A, e, i, o, u"
Deabru beltzak
Azaroaren 30ean, 18.00etan
Egia Kultur Etxean